



*Jai berriotsuak eta urte berri on!*

Soraluzeko Udala



- Gabonetako kultura eta ekitaldien gida
- Urtekaria: 2007 urteari gainbegiratua

soraluzeko  
hamabostekaria **168.** alea  
2007ko abenduaren 21ean

# PIL-PITUEAN



**Paula Alonso,**  
harpa jotzaile izateko ikasten

**JON BASAURI****DOMENTX UZIN**

## GABON GABONETE, ERROS ERROSETE

**G**abon gabonete

Badatua gabonak Domi, famili eta lagun artian pasatu ohi dittugun egunak. Etxakixat hik ze sentimentu eukitzen duan honek egunotan; triste jartzen haizen, pozik edo urte barrirako promesak egitten hasten haizen, tabakua laga edo eta aquagym ikastaroan izena emotia, adibidez. Nere aldetik, esango dustat umetatik gustatu izan jatazela gabonak, batez be egun seinalatuetan etxian sortzen zuan giruagaittik.

Goguan jakat lehengusuekin gaiztakerixak prestatzen genduazela afalosterako. Zigarruetako petarduak edo doministikua eragitten juen hautzak aireratzia txumataxua zuan. Egun horretan, gainera, dana baimendua jeguan. Helduak, piripi jartzia eta gaztetxuak aittaren purutik zupada bat hartzia. Harek egunak harek, Domi. Hala eta be, badaok momentu bat magikua nere oroitzapenetan, hain zuzen be Ekialdeko Erregiak gure etxetik pasatzen ziraneakua. Bizperan ilusinoz baina zalantzak jota oheratzen nintzuan. Goizian, amakesnatzian, ilusinoz baina zalantzan juaten nitzuan pasiluan barrena zapaterixa inprobisaturuntz. Bekarrak kendu, eta nere begiratu arka zaharrea zuzentzen zuan. BAI, hantxe jeguan froga. Hantxe jeguazen hiru edalontzixak, ardo ondarez, eta etxeguan han bizperan gameluedako lagatako bedarrik. Magia!

Zein dok hire gabonetako orioztapena, Domi? 🌀

**Helduak piripi eta gaztetxuak puruari zupadaka**

Jon Basauri

**Neretzat gabonak opor magikuak zian**

Domentx Uzin

**E**rros errosete Jonba!

Flipatu egin dot bai, zure haurtzaruakin. Baina, holaxe dia gehixenontzat. Nahiz ta askok ez dittuen hola bizi, edo ezin daben.

Neretzat be gabonak opor magikuak zian. Goizian, “Abenduak gaur 24.na” eta abesten, kalejiria. Iluntzian Amama Rosarionera juaten ginan. Danok afaldu, girua, frituak eta! Gero hasten zan onena: Aittitta Pakok lurrundutako kristaletatik begiratu eta esaten zeban:

“Aiba, uste dot zeoze ikusi dotela... Txararik behera argi bat dator.” Eta arrebria eta bixok ahozabalik. Ta beranduago, postre inguruan, Olentzeron astua ikusi zebala ezkinatik ezkututzen, eta laste etorriko zala. Ai ene! Orduan hasten jakun bildur, eta desio eta nerbixo eta danak batera! Baina etxoin egin bihar genduan Aittittak esan arte.

Gero azken probia zetorren. Desiatzen egon arren, bildurgarrixena. Pasillo luzia ilunetan egoten zan, eta arrebria eta bixok (ni beti atzerago geratzen nitzan) bukaeraraino jun bihar ginan argixa piztera! Nik Olentzeron begi gorrixak imajinatzen nittuan, eta han badago? Argixa piztutakuan, dana azkar pasatzen zan, balkoia zabalik, baso hutsa, eta ohe azpizan begiratzian ERREGALAZ BETETA! Bua, pasada bat zan haura! Sukaldera danon erregaluak eruaten genduzen, eta bukatzeko Kinan jolasten genduan. Bertan lo egin, esne sopak gosaldu eta erregaluekin jolastera!

🌀

**Goguan hartzeko**

**Urte barri, txarri belarri, dakanak ez dakanari, nik ez dakat eta neri.**

Esaera zaharra

Huelvako  
Juana

## GUTUNAK

Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo dakite sakabanaketa helburu jakin batzuk lortzeko asmo gaiztoekin pentsatu zela; espetxeetara bisitan doazenei presoenganako maitasuna adieraztea zein zaila egiten zaien dakiten bezala.

Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo ezagutzen dute harresi sendoak eraiki nahi izana, gatibu dauzkateni gertuko sentimenduak hel ez diezazkien; sentimenduak irribarre batekin iristen zaizkiela dakiten bezala.

Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo dakite estatuak beraiekin erabiltzen duen hizkuntza mendekuarena dela; agintean daudenen jokabidea, kapritxoaren arabera, bisitarik gabe utziz, etxerako bidea hartzea zer den dakiten bezala. Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo ezagutzen dute zein egoeratan bidaiatzen duten espetxeetara hurbilen dituzten senar-emazteak, gurasoak edo lagunak; pertsonak tratatzeko kodigorik hedatuena amorrua dela dakiten bezala.

Politika  
ustelduta  
dago

Momentu honetan bertan  
Euskal Herriko gazte abertzaleak  
atxilotuta daude.  
Estatuko Segurtasun indarrek  
kartzelara bidali nahi dituzte.  
Lehendakariak hitz egin nahi du,  
eta politika kaka izaten hasi da:

Gure Euskal Herriko arazoak  
ez dauka bukaerarik...

Baina fatxen manifak legekoak dira  
eta euskal abertzaleei

Bidezuzen  
estatua

Botere banaketa omen. Epaile, politiko, zein polizi. Danak bat ez? Botoak ere banatuta omen. Danak bat ez? Egunkariak ere Correo Español, Diario Vasco, El Mundo, El País zein ABC. Danak bat ez? Editorialak ikusterik baino ez dago. Amen!

Mikel Larrañaga

Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo ezagutzen dute elkartasunaren hizkuntza unibertsala; Juana bezalako lagunek eskaintzen dieten hurbiltasuna noraino den zintzoa dakiten bezala. Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo dakite normaltasun politikora iristeko mota guztietako gehiegikeriak alde batera utzi beharko ditugula; Juanak sinisten duen justizian oinarrituko den herri libre bateko bizilagunak izan nahi dutela dakiten bezala. Presoek, senideek, edo presoek lagunek ondo dakite Juanari asko zor diotela; arazoei irtenbide duin bat eman nahi baldin bazaie negoziazioari heldu beharra dagoela dakiten bezala.

Presoek, senideek, edo presoek lagunek bihotzez eskertzen dute Huelvara iritsi eta autobusek jaitsi orduko Juana han ikusi eta edozein dela bidaiaria, bere laguntza eskainiz, edozertarako gertu ikustea; dakiten bezala ezinezkoa egingo zaiela horrenbesteko duintasunari maila berean erantzutea.

Bittor Trebiño

gomazko pilotak eta kezko potoak  
botatzen dizkiete.  
Espainiaren burokrazia ustela dela!  
Egia da!  
Hauteskundeak iristear daude  
eta politikariak asko hitz egiten ari dira,  
baina gezurteroak dira,  
denak tronuaren bila doaz!

Euskal Herriak aske izan nahi du.  
Hau kriston katxondeoa da.  
Guk ez dugu barkatuko,  
Ezingo dute inoiz gurekin.

Gabriel Galan

### ZUZENKETAK

Aurreko alean akats batzuk kaleratu ziren erreportaietan. Kapilla ez da kultur areto bihurtuko, nahiz eta irekia den hainbat ekintza sozial eta kulturalentzako, baldintzapean beti ere. 1999 eta 2004 arterako emandako gastua, 2001ari zegokiona zen.

# PIL-PILEAN

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563  
**Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari-  
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek  
erakunde hauen  
dirulaguntza  
jasotzen du euskara  
bultzatzeko.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaSORRALUZeko  
UDALAGIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Angel Catalan  
Gabonak

Bizitzea tokatu zaigun sasoi honek badu ezaugarri bat: presa. Orokorrean antxixika bizi gara. Gure gizartearen helburua edozer gauzaren kontsumoa dela badakit, eta horretarako korrika egin beharra dago; bestela, agian merkatua agortu egingo da eta gure helmuga deuseztu, behe-lainozko egunetan paisaia bezala.

Hainbeste jende gustuko ez dituela dioen gabonotan presa handiagotu egiten da eta kontsumoaren amaiezineko lasterketa zoroa hasten dugu. Gure helmuga ez da ospatzea, ez; erostea da, berdin da beharrezkoa den alaez. Pelotoiaren hasieran jarrita bakarrik lortu ditzakegu jakirik onenak (barkatu, garestienak), oparirik deigarrienak eta bidarik exotikoenak.

Paradoxa bat: Gabonetan jaiotza ospatzen da, bizitza berri baten hasiera izateko aukera. Gera dezagun lasterketa eta goza gure denbora familiarekin, lagunekin, bizilagunekin. Ez kontsumitu.

Jakinguraz betetako umeak izan gaitzen berriro eta begira dezagun ingurura, gure ondokoen alaitasun eta poztasun nahiak topatzeko, presa gabe, kontsumoaren helmugan pentsatu gabe. Niri Gabonak gustatzen zaizkit. Zorionak eta urte berri on denoi.

# ((ENTZUTEKUAK))

Paula Alonso

## Harpa kontzertua emango du urtarrilean

### Noiz ikusi zenduan lehenengo harpa bat?

Kontserbatorixuan sartzeko probetara jua nintzian ikusi neban. Andra batek jotzen zeban, nahiko zaharra zan, baina gero jua egin zan eta beste irakasle batzuk etorri dira.

### Zela auleratu zinu harpia?

Hasieratik gustatu jatan harpia. Ez neban beste instrumentu batekin be zalantzarik euki.

### Noiztik zabiz harpia jotzen ikasten?

2004an hasi nintzan ikasten Donostiako kontserbatorixuan. Ane Artetxe da nere irakaslia. Oso ondo jotzen dau berak. Oinarriko mailako 4. mailan nago eta gero erdi-mailara pasatuko naiz. Oinarrikuak 4 maila daukaz eta erdi-kuak sei. Neregaittik danak egingo nittukez. Gero unibertsitatia be egoten da, goi-mailako ikasketak, baina beste eskola baten da.

### Goi-mailara heldu nahiko zenduke?

Hori zaila izango da, baina gustatuko jatan. Baina erdi-mailara pasatzeko azterketia oso zaila da. Albur potoluak eta partitura asko ikasi bihar dira. Ahalegina eginda eta asko ikasita heldu leike...

### Harpajole famaturik ezagutzen dozu, adibidez, Olatz Zugasti?

Ez. Bueno, uste dot telebistan ikusitta daukatela.

### Zelako kantuak jotzen dozu?

Gehixenak klasikuak izaten dira baina gabonetako kantuak eta taldian jotekuak be eukitzen dittut. Ostegunian adibidez, taldian jo neban eta rock bat jo genduan kontserbatorixoko gabonetako kontzertuan. Nere lehenengo kontzertua izan da harpiakin. Koruakin Bilbon egon ginan lehengunian. Solfeo eta abesbatzako klasiak be eukitzen dittut.

### Elizan joko dozu laster.

Bai, urtarrilan 12xan. Nere amari deittu zotsen gonbidatzeko eta pozik juango naiz. Kantu klasiko bi joko dittut. Bat nahiko berezixa da, erritmuakin jo bihar dalako harpan bertan. Rondel izena daka. Eta bestia Romance izango da. 🎵

Paula Alonso bere etxean harpa jotzen.



**JABIER ALBERDI**  
HARATEGI  
ARTISAU ERARA  
ESPEZIALIZATUA  
KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.

KALITATEA

Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32

**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK  
Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# 3.666 euro jasoko ditu Udal Liburutegiak Eusko Jaurlaritzatik



Urtero Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diru-laguntzak ematen ditu Euskadiko Sistema Nazionalaren barruan dauden liburutegietako tituluarrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, beren liburutegietako liburu-multzoak berritu edota handitzeko.

Aurten, 3.665,79 €ko diru-laguntza jaso du Soraluzeako Udal Liburutegiak eta beste hainbes-

te gutxienez jasoko du Udaletik. Diru hori liburutegiko fondo/bilduma bibliografikoa berritzeko eta gaurkotzeko erabiliko da, besteak beste, gaiak jorratzen dituzten materialak (liburuak, DVD, CD-ROM), fikziozko liburuak (ipuinak eleberriak, poesia, antzerkia eta abar.), entziklopediak, hiztegiak, pelikulak (DVD, VHS), musika (CD) eta aldizkariak.



## Bi hildako utzi zituen asteburuko istripuak



EITB

Soraluze eta Maltzaga bitartean bi ibilgailuk aurrez aurre jo zuten zapatuan, horietako batean soraluzetarrak zihoazen. Ezbeharrak hildako bi eragin zituen, 37 urteko gizonezkoa eta 3 urteko umea, ermuarrak eta senideak biak. Lau zauritu ere izan ziren.

## Santa Anatik frontoirako igogailua badabil



Martxan da Santa Ana eta frontoia lotzen dituen igogailua. Oraindik industria baimena falta zaion arren, behin-behineko erabilpena izango du.

## Ezozki Bideko txabola bota dute

Salaketa bat dela medio, Ezozki futbol zelaiaren ondoan zegoen txabola beren jabeek bota dute, Udalak hala aginduta.

## Olentzero eta Mari Domingi zuhaitzaren lekuan

Aurten ez dago pinurik eta bonbilarik Plaza Barrixan gabonak direla aditzera emateko.

Olentzero eta Mari Domingik estalpean hartu dute haren tokia, baserriko tresna eta jakiak aldamenean dituztela.



M. Valero



### SAN ANDRES

ITURGINTZA

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



### MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

## Aratustek antolatzeko bilera Udalean

Urtarrilaren 3an, eguena, 2008ko Aratustek antolatzeko ideiak eta ekarpenak jasotzeko Udaletxean egingo den bilerera joateko deialdia luzatu die herritarrei Udaleko Kultura Batzordeak. Helbide elektronikoa ere jarri dute ekarpenak helarazteko: [udala@soraluze.net](mailto:udala@soraluze.net)

## Euskaltzaleei epaiketa

Soraluzeko pertsona batek, beste hamaikarekin batera, epaiketa izan du justizian euskal hiztunen eskubideak aldarrikatzearen. Bost urteko kartzela zigorra ezarri nahi zaio. Sententziaren zain dago.

## Kiroldegiko bazkideentzat oharra

Udal Kiroldegiak jakinarazi du bazkideentza utzi nahi dutenek hilaren 31a baino lehen jakinarazi eta karneta itzuli beharko dutela. Bestela zuzenean karneta berrituko zaie.

## Gaztelekua martxan da

Asteburu arratsaldetan egongo da zabalik, kiroldegiko erakusketa gelan eta liburutegiko atarian. Jolasak, irakurtzeko eta barriketaren egoteko

# Jendez bete zen Eliza inaugurazioan

A benduaren 15ean zabaldu zituen ateak Andre Maria Zerura-tzearen Elizak, meza berezi batekin. Ehundaka herritar hurbildu ziren ekitaldi berezian parte hartzera.

Ordubete lehenago joandakoek lekua izan zuten jarlekuetan, Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkari politikoez bezala. Gai nontzeko askok zutik entzun zuten ordubete eta erdi iraun zuen meza.

Argazkian ageri diren apaiak izan ziren meza ematearen arduradun, tartean, herrian apaiz izandako Don Benantzio, Sabin, oraingo apaiza Luis eta Juan Mari Uriarte Gipuzkoako Gotzaina. Tarteka Ezoziko Ama Abesbatzak abestu zuen, baita Iñigo Alberdik organoarekin kantuak lagundu ere.

Orain egunero dago Eliza zabalik, bertaratu nahi duen edozeinentzat.



**MENDATA** taberna

Pizzak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazuelitak ● Bokadilloak ● Razioak

ostirala 08:30 - 22:30  
larunbata 08:30 - 22:30  
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

EGONKITUAKO GANADU-HARAGIA  
CERTICAR  
CARNÉ DE VACUNO CERTIFICADO

**Kontulan Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze GIPUZKOA  
Tlfnoa: 943 75 17 82 Faka: 943 75 01 82

**Juan Mari**  
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



### Euskara autoeskolan!

Gero eta denda eta saltoki gehiago dira herrian euren izena euskaraz jartzen ari direnak. Euskara eta euskaldunonganako errespetua adierazten dute eta horrek jendea erakartzen du. Bejondeizuela!




### Zer egin?

“*Ze hizkuntzatan idazten ditzuzu mezuak? Emailetan, txatetan, sms mezuetan... erabili deigun herriko euskara!*”



### Zabaldu atea euskarari!

Gure ate eta zerrailak konpondu nahi dituztela diote iragarki honetan baina iragarkia emakumeei bakarrik zuzentzen diete eta gainera gaztelera hutsean dago. Iragarkia etxejabe guztiei eta euskaraz ere eskaini izan balute, itxura hobea emango zuketean.



Egoera formaletan euskara batuago bat erabiltzea logikoagoa den moduan, erabat logikoa da hurbileko lagun edo ezagunekin dihardugunean geure euskalki edo hizkeran (mendebaldekoa) berba egin eta idaztea. Harreman informaletan, ederra da mezuak norberarengandik hurbilen dagoen euskararen bidaltzea. Adibidez; “Gr gban krstna bt bhr jnau! Torri hri kguen!”. Gogoratu euskararik txarrena egiten ez dana dala.



## ALBISTEAK

### Euskaraz bai!

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak 10. urteurrena ospatu zuen asteazkenean Bilboko Euskalduna Jauregian egin zuen ekitaldian. Bertan, hainbat eragile sozial, ekonomiko eta administratibo izan ziren, euskalgintzako beste hainbat ordezkariarekin batera.

Ekitaldian ‘Euskaraz bai’ adierazpena aurkeztu zuen

Kontseiluko idazkari nagusiak. “Adierazpen honekin bat egiteko eskaera luzatu nahi diegu Euskal Herriko eragile guztiei, ‘Euskaraz bai’ esatea eta egitea denon erantzukizuna delako”, azaldu zuen Xabier Mendigurenek.

Bukatzeko, Kontseiluko idazkari nagusiak etorkizunerako aipamena egin du: “ ‘Bai euskarari’ intentziotik ‘ Euskaraz bai’

konpromisora abiatzeko unea da, euskararen alde egoteaz gainera, euskara ikasi eta erabili egin behar da”. Horretaz gainera, euskara lehentasunezko hizkuntza izatea lortu behar dela aipatu zuen, «horrela ziurta baitaiteke euskaldun eta biztanle guztien hizkuntza eskubideak bermatuta izatea».

### Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko

Behatokia 902 19 43 32  
www.euskararentelefonoa.com

Elebide 012  
www.euskadi.net/elebide

*Eguzkiaren indarrak  
jasotzen du behe-lainoa  
Denon gogoak  
jaso dezala Euskara  
zeru urdin eta zabalera*

Pil-Pilean Euskara Elkarte





# Ni Gipuzkoa naiz.

**Guztiok gara Gipuzkoa.**

Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

**2007/2011 Kudeaketa Plana**



**GIPUZKOA**

zurekin, aurrera >>



2007ko Aurrekontuak zaharrak berritzen



Auzolan, lagunartean herria edertzen



Íñauterietako mozorroak eta zomorroak



Txurruka jatetxea belaualdiz belaualdi



Lucia Etxabe gerraren eta jostuntzaren harietan



Euskara amaren altzoan ikasia



25 urte itxaropena ereiten



Jon Aranda aurrera bolia!



2007ko hauteskundeak Datozen lagurteetan zer?



JANTZI ABARKAK eta DANTZARAI



MESIAK GAINDITUZ



Juanjo eta Juan Luis




Alberto Iaurrieta, Ekustore Ginean hizia ereiten



Jaixak pil-pilean



TXEMA PENALBA, larrioi medikua "Bakararen bat min hartuta daganian, sufridu egiten dot beti."



Urtaro argiari lehaitzeko irabazlea, Lourdes Martínez



Marraskilo Tour 2007



Ba al ba bizitzarik hor?




Aritz Sudupe Soralezuko artzai gaztea



Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!



Abenduaren 19an Elizak atea irekiko ditu



Paula Alonso, harpa jotzaile izateko ikasten

# PIL-PILEAN 2007 URTEKARIA

# 2007 URTEA ARGAZKITAN



## Urtarrila

**PLAZA BARRIXA:** irisgarritasuna hobetzearen, arrapala bat egitea erabaki zuen Udalak, plazaren berezko egiturari zati bat kenduta. Herritarren kehengatik berezko egoerara itzuli zen plaza maiatzaren hasieran.



## Otsaila

**AUTOBUSEN AUZIA:** 2006ko irailan hasi zen autobusen auzia. Garraio publikoaren aldeko herri plataforma bat sortu zen eta egoerari buelta emateko lanean jardun zuen. Martxoan Mankomunitateak eta Aldundiak adostasuna lortu zuten.



## Martxo

**KORRIKA:** 15.edizioa izan zuen euskararen aldeko Korrikak. Euskararen transmisioan eta mantenuan duten garrantziagatik eta ezinbesteko funtzioagatik, euskal emakumeak omendu dituzte aurten.



## Apirila

**HAURRESKOLA:** 0 eta 2 urte arteko umeentzat Haurreskolak atek ireki zituen Ikastola Zaharreko azpiko lokal berrietan. 8 ume hasi ziren orduan. Gaur egun gehiago dira.



## Maiatza

**ALDAKETAK UDALDEAN:** Hauteskundeen emaitzen ondorioz, guztiz aldatu zen Udaleko konposizioa. Boto gehien lortu zituen EAE-ANVk alkatetza (Jose Luis Arizaga) eskuratu eta EArekin batera Udal-gobernua osatu zuen.



## Ekaina

**DANTZA TALDEA:** 50. urteurrena ospatu zuen herriko dantza taldeak. Ehun dantzaritik gora batu ziren Erregetxean dantzan, txistularien laguntzaz. Bazkaria, omenaldia eta erromeria izan ziren gero. Dantza Taldearen DVDa kalean da.

# 2007 URTEA ARGAZKITAN



## Uztaila

**BAI EUSKARARI:** 25 elkartetek Bai Euskarari ziurtagiria jaso zuten Ziurtagiria elkartearen eskutik. Bai Euskarari planean parte hartzen diharduten guraso elkarte, kirol eta kultur elkarte zein elkarte gastronomikoak izan ziren bertan.



## Abuztua

**IRUREKO JAIXAK:** Aspaldiko partez ospatu ziren Irureko jaiak. Meza, luntxa eta dantzaldia izan ziren festaren oinarri, trikitilariak lagunduta. Hamarnaka lagun batu ziren.



## Iraila

**ZUBIKO LANAK:** Izartu plana jarraituta, Zubi Nagusiko eraberritze lanak hasi ziren; hasieran Udaletxe parean, gaur egun Gila tabernaren pare inguruan. Lau hilabete daramatza zubiak itxita.



## Urria

**MARRASKILO TOUR:** Soraluzeko I. mendi ibilaldiak 120 lagun batu zituen lehen edizioan. Iristen aurrenak izan zirenek 5 ordu eta erdi behar izan zituzten; azkenengoek 10 inguru. Denak pozik iritsi ziren, antolakuntza zorionduz.



## Azaroa

**ERASO SEXISTAK:** Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako egunerako Udaleko Emakume Batzordeak elkarretaratzera deitu zituen herritarrak eta 300 inguru batu ziren. Egun batzuk lehenago eraso fisikoa jaso zuen herriko emakume batek.



## Abendua

**ELIZAREN INAUGURAZIOA:** Urtebete itxita egon ostean ireki zituen ateak Elizak. Eraberritzean berezko egitura eta koloreak mantentzeaz gain, toke modernoa dauka. Ehundaka lagun izan ziren meza berezian.

# GABONETAKO KULTUR ETA EKITALDI GIDA

## Barixakua, abenduak 21

22:30ean liburutegiko atarian, **Antzerkiola Imaginarioa "Kaputen kanta"**. (Pil-pileanek antolatuta)  
22:30ean Gaztetxean, **On Benito** eta **Gora Japon** taldeen kontzertua (Topaguneak antolatuta)

## Zapatua, abenduak 22

18:00etan frontoian, **Poxpolo, Mokolo eta konpainia** pailazoak. (Udalak antolatuta)  
20:00etan Elizan, **Ezoziko Ama Abesbatza eta Canta Cantorum** (Gasteiz)  
22:30etan Mendata tabernan, **"All Jazz Era" musika taldea**. (Pil-pileanek antolatuta)

## Domeka, abenduak 23

17:00etan kapillan, **"Olentzero, gabonetako ipuina"**, zinea. (Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta)

## Astehelena, abenduak 24

11etatik aurrera herrian zehar, Plaza Barrixan amaituta, **Olentzero eta Mari Domingi**. (Plaentxi Ikastetxea, Pil-pilean eta Musika Eskolak antolatuta).  
19:00etan, Plaza Barrixan hasita, **euskal preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa** (Askatasunak antolatuta)

## Eguaztena, abenduak 26

16:00etan, DBHko ikasleentzat, kapillan, **zinea**. (Ant.: Keixeta Guraso Elkarteak)  
18:00etan liburutegiko atarian, **Angel Magoa**. (KUTXAK babestutako ekintza)

## Eguena, abenduak 27

10:15ean geltokitik, 1. eta 2. mailako ikasleentzat, **Eibarko PINera irteera** (Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta)

## Barixakua, abenduak 28

16:30ean DBHko ikasleentzat kapillan, **zinea**. (Keixeta Guraso Elkarteak antolatuta)  
18:00etan Plaza Zaharrean, **kale animazioa. Detraka Animazio Taldea** (Udalak antolatuta)  
19:30ean Gaztetxetik, **Bertso poteo erreibindikatioa**, herriko bertsolariekin. (Topaguneak antolatuta)



**Zapatua, abenduak 29**

11:30etatik 13:30etara eta 16:00retatik 19:00etara kiroldegian. **HAUR PARKEA.** (Udalak antolatuta) 20:00etan Elizan, **Leitzako Asketa Abesbatza.**

**Astlehena, abenduak 31**

19:00etan Plaza Barrixan hasita, **manifestazio isila** "Peio etxera orain. Euskal presoak Euskal Herrira. Eskubide guztien jabe" lemapean. (Topaguneak antolatuta) 01:30ean Plaza Barrixan, **euskal preso eta iheslarien aldeko brindisa** (Askatasunak antolatuta)

**Euaztena, urtarrilak 2**

15:00etan estaziotik, Plan,plin,plan-eko ikasleentzat, **Bilboko PINera irteera.** 16:30ean Ludotekan, 4eta 5 urteko haurrentzat **Eskulan Tailerrak.**

**Eguena, urtarrilak 3**

15:00etan zubitik, DBHko ikasleentzako, **Txuri Urdinera irteera patinatzer.** (Keixeta Guraso Elkarteak antolatuta) 16:30ean Ludotekan, LHko 1. eta 2. mailako haurrentzat, **Eskulan Tailerrak.**

**Barixakua, urtarrilak 4**

15:00etan zubitik, 5. eta 6. mailako ikasleentzako, **Txuri Urdinera irteera patinatzer.** (Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta) 16:30ean Ludotekan, LHko 3. eta 4. mailako haurrentzat, **Eskulan Tailerrak.**

**Zapatua, urtarrilak 5**

19:00etatik aurrera herrian zehar, **Erregeen kabalgata.** (Beti prestek antolatuta)





## Uga Gabonetan... esnez eta mazapanez aseko gara!

Al  
bis  
tea

### Kaixo lagunok:

Bigarren mailako ikasleak gara. Hiruhilabete honetan lan eta lan jardun dugu. Gure azken gaia esnea eta esnekiak izan da eta errezetak idazten

ere ikasi dugunez, hona hemen esneari buruz zenbait bitxikeri eta Mazapanaren errezeta hau etxean egin dezazuen, Gabonak datoz eta! 🐸

Mazapana

OSAGAIAK: 500 gr. almendra nahitaz 2 azualtza eta 400 gr. azukre glassa.

- 1- Hasteko azukre glassa eta almendrak nahastu.
- 2- Gero azualtza zuringoa eta goringoa berotzi.
- 3- Ondoren zuringoa, almendrak eta azukre nahastuz oroa egin.
- 4- Azkenik, oroa nahastu ondoren nahi dituzun formak irudikatzen egin. Gero azualtza goringoz igertze, sartu kate bizian eta 5 minutu edukai.

ON EGIN

### BAZENEKIEN...



Emenon esnean %90 ura dela?



Gurina esne-gainanekin egiten dela?




Obegina ederra astume esnetan bawtzen zela lanua fin aldatu?



Yogurta oro elingari zharra dela eta egituren dagoeneko jaten zutela



Ahuntz esnea elikagai rikoroenetarikoak dela?



## Ze eskatuko dotsezu Olentzero eta Mari Domingiri?

### Ze nahiko zenduke zure etxe kuendako?

Marta Rivero, 7 urte



Nik motxila bat, iratzargailu bat, aro bat eta marguak daukazen maletintxo bat eskatuko dotseraz, baina oindio ez dot gutuna idatzi. Nere ahiztiandako argixa egitten daben panpin bat ekarri deixela.

Markel Gil, 7 urte



Nik eskatuko dot globo interaktibo bat, ikasteko balio dabena, uretan ibiltzen dan auto bat eta aterkin bat, apurtu ein jata eta. Aitandako brujulia, amandako soineko bat eta arrebiandako panpina erropekin.

Berak nahi dabena ekarri deixela. Eskatu munduari buruzko puzzliak, partxisa eta panpin bat eskatuko dittut. Aitandako eta amandako erropak ekartzia nahi neuke.

Paula Arana, 7 urte



Mario Bross jolasa dakat Game Boy-xa eta Baseballian jolasteko Ui nahiko nittukez, besterik ez. Nere anaiandako bizikleta bana, erruberia apurtu jakolako, amandako zapatilak eta aitandako txapela.

Mouad Ina, 7 urte



## LEHIAKETA

### Lehiaketako irabazleak

Hauxe zen galdera: **Zenbat metro ditu Soraluzeko Irukurutzeta mendiak?**

Hauxe erantzun zuzena: **895 metro**

Deitu duten guztien artean 3 bideojoko zozketatu ditugu. Sarituak **Iker Etxabe**, **Maialen Alberdi** eta **Usama Ina** izan dira.

**Zorionak!**





# ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Ze pentzatu jatzu Olentzero eta Mari Domingi ipintzia zuhaitzan lekuan?

Aurten Olentzero eta Mari Domingik hartu dute Gabonetako pinuaren lekua Plaza Barrixan.

**SONIA BLANCO**  
Zerbitzarixa



**GORKA SALABERRIA**  
Langillia



**ANE GABILONDO**  
ikasliak



**JOSU ARRIOLA**  
Ikaslia



**E**gixa esateko, Plaentxiako zuhaitza nahiko kutria zan, ez zeban askorik luzitzen, beste herri batzuetan moduan. Oin daguana behintzat hemengo ohituria da, eta umiak gerturatzan dianian, bada-kixe ze dan.

**O**so ondo. Gabonetan kontsumismorako ohituria egoten da eta zeoze berrerabilgarrixa ipintzia hobeto dago, zuhaitzetan gastatu biharrian urtero. Gure kulturia erakustarazten dabe gainera.

**Z**uhaitzahanixagogen-duan, beti egon izan dalako. Mari Domingik sorgina emoten dau. Baina hala eta be, gu beti juaten gara bereri gutunak emotera.

**E**z dosta asko ardu-era. Zuhaitza betikua izaten zan eta aldatziarren ondo dago, baina munekuak pixkat bildurra emoten dotsela umieri entzun dot. Dana dala, arrarua egin jata aldaketia.


**KOMIKIXA**

**Zorionak !!!**  
Olentzerok zakuan arrastaka daramatzan istorioak

2007  
**ABENDUAK**  
**24**



tristura edo poza



**EDURTZA Kafetegia**  
Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Javier Alonso Zelaia  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

# Elizaren berrinaugurazioko ekitaldi oroigarriak

Kontzertuak 20:00etan Elizan



## Abenduaren 22an

Ezoziko Ama Abesbatza eta Canta Cantorum (Gasteiz)



## Abenduaren 29an

Leitzako Asketa Abesbatza



## Urtarrilaren 4ean

ONCEko Alaia Abesbatza

## Urtarrilaren 12an

Illumbe akordeoi orkestra (Donosita) eta Paula Alonso harpa jotzailea (Soraluze)



## Urtarrilaren 19an

MA NON TROPPO (EOSko soka taldea)



## Urtarrilaren 26an

Kanta Kantari Vedruna Abesbatza (Gasteiz)



**argitek**  
ELECTRICIDAD • ELETRIZITATEA

David Rascón  
607 486 428

**Zorionak eta urte berri on!**

Instalazio eta erreforma  
elektrikoak etxebizitza eta enpreseetan

Baltegieta, 17 • 20590 SORALUZE

euskara

ari du

**ZORIONAK**

aek

**GILA TABERNA**

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

**KM**  
Desing

Diseinua eta Formera

Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

# Sorak hamaikagarren lekuan bukatu du 2007.urtea

Denboraldiko 14 partidu jokatu ostean, 16 taldetatik 11. postua lortu du Sora futbol taldeko

erregionalak. 15 puntu batu ditu, etxean lau partidu irabazita eta denetara 3 aldiz berdinketa lortuta. Taldearen aldeko golak orain artean 24 izan dira, aurka jaso dituenak baino bost gutxiago. Denboraldia bukatzeko erdia baino gehiago falta zaie, 16 jardunaldi.

## Jubenilak eta kadeteak

Jubenilek, hamabi partidu jokatu, ez dute puntu bakar bat ere lortu. Azkenak doaz sailkapenean. Kadeteak 5. lekuan doaz, etxean eta kanpoan irabazitako 3 partiduei esker.



## Jauregik DV txapelketako finala jokatu du

Aitor Mendizabal antzuolarra bikote hartuta, Diario Vasco antolatzen duen txapelketako finalera iritsi da Iñaki Jauregi. Zarautzen jokatu da azken

partidua domekan, hilak 23, Aritzbatalde frontoian, goizeko 11:30etan. Ugaitz Renobales alegiarra eta Unai Garmendia legorretarra izango dituzte aurkari.

## Mendi taldean federatzeko epea zabalik

Soraluzeko Mendi Taldeko ki-deak hasiak dira federatzeko beharrezkoak diren datuak jaso eta karnetak berriren. Otsai-

laren bukaerara arte egongo da epea zabalik. Ordutegia: martitzen eta eguenetan 19:30etatik 20:30etara.

## EMAITZAK

### PILOTA

Titin III – Laskurain 22  
Xala – Pascual 15

Capellan – Nalda III 22  
Del Rey – Laskurain 21

Ongai - Mariñelarena 19  
Mendizabal - Jauregi 22

### FUTBOLA

Sora 6 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Sora 0 – Arrasate 12 (Kad.)  
Bergara 1 – Sora 1 (Erreg.)  
Sora 1 – Ikasberri 5 (Jub.)  
Arizmendi 4 – Sora 2 (Kad.)

## AGENDA

### PILOTA

DV txapelketako finala  
Domeka 23, 11:30etan Zarautzen  
Renobales – Garmendia  
Mendizabal – Jauregi

Domeka 23, 17:00etan Eibarren  
Capellan - Laskurain  
Gonzalez - Zubieta

### FUTBOLA

Gabon osterara arte ez dago partidurik.

GAZTELUPE  
taberna

tel: 943 75 20 81

JATETXEA  
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

**Belarrak**  
Loradenda  
eta belardenda

Gabonetarako eskariak telefonoz ere jasotzen ditugu  
943 75 30 11ra

**PASCUAL CHURRUCA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruca.com](mailto:general@pascualchurruca.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: J.A. Basauri

## DANTZARIAK ALTZOLAN

**B**i edo hiru urtian jarraixan juan ziran Plazentziako Ezoziko Ama Dantza Taldekuak Altzolaran dantzara, Don Enrike orduko apaiza gidari zebela. Hogei dantzari nagusi (hamabi neska eta zortzi mutil), bost dantzari gaztetxo (hiru mutil eta neska bi) eta lau musikari (hiru txistulari eta tanborterua) mutil gazte batek lagunduta. 1960 urte ingurukua da argazki hau.

**Ezkerretik eskumara, goeneko ilaran:** Moises Altuna, Moises Arruabarrena, Jabier Gabilondo, Jose Luis Aspe, Jose Inaxio Txintxurreta, Luis Mari Albisua eta Jose Luis Alberdi (+).

**Erdiko ilaran:** Pili Aseginolaza, Mertxe Barrutia, Maria Jesus Aldazabal, Maribel Preciado (+), Itziar Amor (atzekaldian), Belen Aristi, Maria Jesus Mendia, Nieves Arrazola, Don Enrike, Maria Isabel Maiztegi, Anabel Aldazabal, Ezozi Basauri, Mariasun Gantxegi (+) eta Jabier Aldazabal.

**Barreneko ilaran:** Juan Antonio Aspe (+), Maria Elena Urizar, Ramon Barrutia, Jose Angel Basauri, Agustin Gabilondo (+), Jose Luis Perez, Aitor Amor, Mari Lurdes Maiztegi, Juan Andres Lopez eta Ramon Arzuaga. 🌀



### JUAN ANTONIO AXPE LIZARRALDE

2007KO ABENDUAREN 9AN  
HIL ZEN 58 URTE ZITUELA

Zuk ereindako hazia erne da,  
eman du fruitua.

Dantzari gazteak badatoz eta etorriko dira.  
Herriko dantzazaleok gogoan izango zaitugu.  
Eskerrik asko, Axpe!  
Soraluzeko Dantza Taldearen  
50.urteurreneko antolatzaileak

# GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak  
Erreuma  
Erreabilitazioa  
Kirol osteko errekerperazioa  
Tendinitisak  
Zaintiratuak**

Orduetgia:  
8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)



Oier Oregi Unamuno  
Santa Ana 7  
Tel. 943750022

## Etxabe Harategia



Euskal  
txabalkia  
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

## PLACENCIA KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45

## TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

## MABE ILEPAINDEGIA



ESTETIKA  
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

## Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324  
Mug.: 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

## ELIZPE Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

  
Mutua General de Seguros

Loli Nievas García

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgs.es



## Lakuesta Optika

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59



# GOL

GOL industriak S.A:  
Sagar Erreka, 19 45PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE